



Bizitzak, zenbakien gaineratik

HAU GERRA BAT DA
ETA FEMINISMOA
DA GURE ARMARIK
ERAGINKORRENA. EZ
DUGU BIKTIMA BAT
GEHIAGO
ONARTUKO



Zure diruak balioa dauka



5. SOLAIRUA
1 LOGELA
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
135.000 eurotik aurrera



5. SOLAIRUA
2 LOGELA - 2 BAINU
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
160.000 eurotik aurrera



3 LOGELA - 2 BAINU
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
180.000 eurotik aurrera

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA:

San Francisco, 32 • 20870 ELGOIBAR

etxegain
IK11

Bizigunea parkean

ETXEBIZITZA GUZTIEK BISTA GARBIAK
DITUZTE ETA TERRAZAK ARRATSALDEKO
EGUZKIARI BEGIRA DAUDE.

SUKALDEAK, HORNITUA DAUDE
ERABAT HORNITUTAKO ARMAIRUAK

IK11k GEHIAGO EMATEN
DIZU, LOGELA GEHIAGO,
ALTUERA HANDIAGO,
BISTA GEHIAGO,
TERRAZA GEHIAGO...
GUTXIAGOREKIN

GE
grupo eibar
inmobiliario

650 442 159

E: comercial@grupoeibar.com

WWW.ETXEGAIN.COM



Irudi bertual
ez klotseak



**OLAIA
MARTINEZ**
ESTETIKA ZENTROA

2006 - 2022

ZUEN LAGUNTZAK ERRAZTU DIGU
EDERTASUNERANTZ BIDAIA.
16 URTEETAN BETE DUZUE FAMILIA
HANDI BAT OSATZEKO GURE NAHIA.
ZUEK EDER, ETA NI GOGOTSU
BEZAIN ALAIA, MILA ESKERI!

OLAIA



%15eko DESKONTUA



TIKET HAU EKARRIZ GERO,
%15EKO DESKONTUA
LORTUKO DUZU
EROSTEN DUZUN PRODUKTU
EDO ZERBITZUAN,
URTE BUKAERARA ARTE
BALIOA IZANGO DU.



2018ko azaroaren 23tik zentru berrian!
Mila esker amets honen parte izateagatik.

TRENBIDE KALEA 21, BEHE, EZK. - ELGOIBAR - 943 242 805

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitateko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberría, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Maialen Sanchez

Idazlea

Ai gure gazteak!



“Gaur, bizitzako une zail honetan gaztea izateari buruz hitz egin nahi dizuet”

Ez dakit zenbat aldiz entzun ote dudan espresio hau: 'Ai gure gazteak!'. Badirudi guztiz aktibo mantentzen den kolektibo honek egiten duen guztiak molestatzen digula edo gaizki hartzen dugula. Zarata gehiegi egiten dutelako, eguneko ordu guztietan sakelako telefonoa eskuartean dutelako, ikasketak bigarren planoan uzten dituztelako... Gaur, bizitzako une zail honetan gaztea izateari buruz hitz egin nahi dizuet.

Ezin dugu ukatu bizi ditugun gertaera guztien ondorioz gure beldurrak eta kezak handitu egin direla, eguneroko bizitza zailduz. Egoera ekonomikoa, zorrak, lanpostua... loa ere kentzen digute batzuetan lehia honetan gabiltzanoi. Ez dut imajinatzerik nahi 16 urteko mutil batek pentsatu edo sentitzen duena, iristen zaion hainbeste informazioarekin eta inguruan gertatzen dena ulertzeko behar diren tresnarik gabe. Gazteen arteko harremanak ganora gutxikoak direla, euren eztabaidagaiak mami eskasekoak direla edota kolperik jo gabe bizi nahi dutela pentsa dezakegu. Batzuei sinestea kosta arren, ez da horrela. Kezkatuta daude, etorkizunak zer ekarriko dien, eta gizarte honek zer eskainiko dien beldur dira. Hala eta guztiz ere, ez dakite bizitzako etapa onenean daudela.

Batzuetan, barne biriketarik ateratzen diren euren barreak entzutean, edo lotsarik gabe kantatuz entzuten ditudanean, inbidia izaten dut, nik ere lehen egiten nuelako, baina orain ez naizelako ausartzen. Batzuetan, bizitza okertu izan zaidanean, garrasi on bat bota izan banu, barruko dena hustea lortuko nukeen. Euren ausardia izatea, eta dena botatzea. Haiek egiten duten bezala; nik ere egiten nuen bezala. Gizartea zorrotzagoa bihurtu da, eta gazteek ulertu dute beren helburuak betetzeko ahalegin bikoitza egin behar dutela.

Horregatik, gaur euren alde lantza hautsi nahi dut. Izan ere, egun osoa sakelakoan bitartez haien pentsamenduak lasaitzeko asmoz egon arren, ez dakizue zer ikasi edo norantz abiatu; ulertzen dizuet, bizitza ez da erraza eta batzuetan ez da gaitasun falta, motibazio falta da. Gehienok galduta zaudetela sentitu arren, garai zoragarri hori bizi eta gozatu, guztiok aurkituko duzue zuen bidea eta. Bitartean, gaztetasuna bizi!

BARENek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Urriaren 8an bertan izan ginen; urtarrilaren 7an ere bertan izango gara

Urriaren 8an, Donostian, milaka eta milaka herritar batu ginen *Izan Bidea* dinamikaren baitako azken kilometroak osatu eta egindako bideak ekarritako lorpenari balioa emateko. Elgoibartik ere, dozenaka lagun gerturatu ginen, lehenik, Donostiako kaleak koloreztatzea eta, ondoren, Ilunbeko jaialdira.

Bi urteren ostean, aurten berriro ere Bilbon elkartuko gara guztiok, oraindik ere bidea baitugu egiteko. Euskal Herriratzek urrats garrantzitsua izan arren, euskal presoek oraindik ere etxeratze prozesua gauzatzeko traba eta oztopo ugari jasaten dituzte salbuespen legediaren ondorioz. Horren adibide dira gradu progresioen aurrean

fiskaltza eta Espainiako Auzitegi Nazionalea izaten ari diren jarrera atzerakoia. Hori hala, lanean jarraitzeko beharra ezinbestekoa dela uste dugu, euskal presoek ere dagokien etxeratze prozesua normaltasunez gauzatzeko unea baita.

Gutun honen bitartez, elgoibartar guztioi gurekin bat egin eta herrian antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzeko deia luzatu nahi dizuegu. Gaur, ostirala, 20:00etan Kalegoen Plazan egingo dugun elkarretaratzearekin, besteak beste, eta, nola ez, urtarrilaren 7an Bilboko mobilizazioan parte hartzen.

Sare Elgoibar

Okerrak zuzentzen

Joan zen asteko alean Karakate Bizirik plataformak 200dik gora sinadura bildu dituela argitaratu genuen, baina datu hori oker eman genuen. 2.000 sinaduratik gora dituzte dagoeneko, Karakaten eraiki nahi dituzten eolikoek kontra.

BARREN astekaria

Jarraitu gaitzazu BARENek Youtuben duen kanalean!



Karakateko Igoera (2022-11-19)
727 ikusaildi - Ouzo 7 egun



'Jose Azurmendi: Herria, hizkuntza, kultura' saioa
88 ikusaildi - Ouzo 3 aste



Anbulatorio egunero eta 24 ordu zabaltearen aldeko mobilizazioa
615 ikusaildi - Ouzo 3 aste



Ibilaldi Beltza (Deba Beltza, Elgoibar)
222 ikusaildi - Ouzo 2 aste



Ibilobete 50 urteurrena
285 ikusaildi - Ouzo 1 hilabete



'Kanela, Kalabasa eta Gatax' lekuak
1.026 ikusaildi - Ouzo 1 hilabete



Mendietan eoliarrik ez duteia nahi aldarrikatu dute Elboun
228 ikusaildi - Ouzo 1 hilabete



Entseulista a Jon Mala (BAREN)
321 ikusaildi - Ouzo 1 hilabete



Idorlobeko Igoera 2022
718 ikusaildi - Ouzo 1 hilabete



Ezpata Dantza (Egoitza, 2022-10-02)
428 ikusaildi - Ouzo 1 hilabete



'Tuskara ala ezkara kirolean?' jardunaldia. Deustuko 'Milla hartuz' ekimenaren...
82 ikusaildi - Ouzo 1 hilabete



'Tuskara ala ezkara kirolean?' jardunaldia. Kiroia ere herri-giza da.
55 ikusaildi - Ouzo 1 hilabete



www.youtube.com/user/Elgoibarrennet/videos



Sarrerak salgai: www.herrikoantzokia.eus

**KANTU
BAT
GARA**

KONTZERTU BAT BAINO
GEHIAGO...

**ABENDUAK 1 - 19:00
HERRIKO ANTZOKIA
ELGOIBAR**

SARRERAK:
OROKORRA 10€ - GAZTE TXARTELA 3€
- [HTTPS://HERRIKOANTZOKIA.EUS](https://herrikoantzokia.eus)
- LARUNBATERO, LEHATILAN 18:15ETIK 20:45ERA

ELGOIBAR
UDALA
ARABAKOAN

BIDEAN

*Dantzan ekin genion EUSKARALDIA ariketari
eta kantuan emango diogu amaiera.*

Kantu bat gara!

Dantza ere bagara!

EUSKARA GARA!





XIX. URTEURRENA

Lorea Etxabe Azkue

2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela.

**Edur zurittan hazittako
lore gorrixa ziñan.**

**Urtu eraitten zendun
inguruko hotza,
eta bedarra hazi erain.**

**Ez dogu gehixago
zure berua igarriko,**

**baiña hementxe gerauko da
zure arnasiaz aztarnia,
botatako sustraixen gaiñian.**

Zure familia eta lagunak




Josefa Echevarria Eizaguirre

2022ko azaroaren 19an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Gogorra izango da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko,
baina bizi garen artean
ez zaitugu, ez, ahaztuko.**

Etxekoak



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxerberria.com
www.funerariaetxerberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Aste gastronomiko mikologikoa antolatu dute Aizu! ostalarien elkarteak eta Udalak elkarlanean

Aizu! gastronomia elkarteak eta Elgoibarko Udalak

aste gastronomiko mikologikoa antolatu dute. Atzo hasi zuten hiru eguneko egitaraua eta ondorengo tabernekin parte hartzen ari dira ekimenean: Otzak, Kaia,

Salento, Gabi, Lanbroa, Tantaka, Txarriduna, Gran Siglo, Celia, Malape, Pilon, Aterpe, Mintxeta, The end, Usua, Mahats, Jai Alai, San Roke, Ibai Ondo, San Pedro, Sigma, Lerun, Txarriduna hotela, King Kong, Ilunpe, Iturri, Marem, Kultur Kafea eta Belaustegi. Atzo bezala, gaur ere perretxioekin egindako pintxoak prestatuko dituzte taberna horietan 19:00etatik 21:00ak bitartean, eta 1,50 euroan salduko dituzte. Bihar, zapaturako, ekintza gehiago ere iragarri dituzte. Batetik, 12:00etatik 13:00etara bitartean, Zirkobira kale animaziokoak ibiliko dira kalez kale Kalegoen plazan hasita, eta 12:30etik 14:30era Niala, Aritz eta Sergio magoak tabernaz taberna ariko dira magia trukoak egiten. Iluntzean, 19:00etatik 21:00etara, Crazy Jazzers Traditional Jazz Bandek kontzertua emango du, eta gauean, 23:00etatik 02:00etara, Kresala taldearen kontzertua izango da Maalako parkean. 80ko eta 90eko hamarkadetako musikari omenaldi halako bat izango dela aurreratu dute antolatzaileek.



24/7 Plataformako ordezkariak Legebiltzarreko Osasun Batzordean azaldu dituzte euren eskaerak



5.501 sinadura bildu ostean, Legebiltzarrean agerraldia egiteko eskaera egin zuen 24/7 plataformak, eta zazpi hilabete zain egon ondoren, astelehenean izan zuten aukera hori. Andoni Segundo, Conchi Gabilondo eta Joaquin Rosario izan ziren 24/7 Plataformako ordezkariak Legebiltzarreko Osasun Batzordean. "Gu eskari nagusi batekin gatzatua hona, elgoibartarren gehiengo zabal batek bere egiten duena: anbulatorioaren ordutegia zabaltzea, asteko zazpi egunetan eta eguneko 24 orduetan, Larrialdietarako PAC zerbitzua berreskuratzea eta sendagile eta erizain nahikoa jartzea, beraien lana ondo egin ahal izan dezaten. Hori da eskatzen ari garena, beste ezer ez. Gure eskaera ez da kimera bat, ez da utopia bat. Elgoibarren hori izan dugu duela urte batzuk arte, Osakidetza eta Jaurraltzeko agintariak murrizketak egiten hasi ziren arte", azaldu ziren Andoni Segundok legebiltzarkideei. 24/7 Plataformaren nondik norakoen berri eman ziren, zein ordezkatzuten duten argi izan zezaten. "24/7 Plataformaren barruan Elgoibarko hainbat gizarte eta ekonomia eragile gaude, sindikatuak, pentsionistak, ostalariak, merkatariak... Eragile soil bat baino gehiago gaude hemen ordezkatzuta. Eta gaur hemen Elgoibarko 5.501 herritarren izenean hitz egiten ari gara". Plataformak borrokan jarraituko duela iragarri du.

Itzalen tailerra antolatu dute 'Kiribilduz' programaren baitan

Atxutxiamaiak *Kiribilduz* programaren barruan eta Udalarekin lankidetzan, Itzalen tailerra antolatu du familientzat, abenduaren 3 eta 4rako. Tailerra Herriko Antzokian izango da, 11:00etatik 13:00etarako ordutegian. Familiako kideen eta familien arteko hizkuntza

ohituretan eragiteko eta euskara erabiltzera bultzatzeko helburuarekin antolatu dute tailerra eta Zurrunka Teatro konpainiak gidatuko du. Bikoteko prezioa 12 eurokoa izango da, eta Elgoibarko Izarrako bazkide direnei euro bateko deskontua egingo diete.

Indarkeria matxista salatzeako elkarretaratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren eta Mendaron

Mundu osoan eta baita Euskal Herrian ere manifestazioak eta bestelako protesta ekitaldiak egingo dira gaur emakumeen aurkako indarkeria amaitzea eskatzeko, eta Elgoibarren eta Mendaron ere, elkarretaratzeak daude deituta iluntzerako. Azaroak 25 dituen aldiro, ohikoa da indarkeria matxistan aparteko arreta jartzea, baina begi bistakoa da emakumeen kontrako indarkeria ez dela mugatzen egun bakarrera, eta horixe azpimarratuko dute han-hemen: matxismoak egunero iluntzen dituela milaka andrearen bizitzak.

Elgoibarren, 18:00etan elkartuko dira Kalegoen plazan, indarkeria matxistaren biktimak gogoratu eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako neurriak eskatzeko. Mendaron, berriz, ekintza berezia egingo dute Herriko Enparantzan, 19:30ean, Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak deituta. Indarkeria matxistaren biktima izan direnak zenbaki huts



izan ez daitezen, haien inguruko informazioa bildu dute beren blogean (<http://mendarokotratuon.blogspot.com>) eta herritarrei eskatu diete egoera horien inguruan gogoeta egin eta salatu edo eskatu nahiko luketen hori idazteko eta plazara eramateko, hildako pertsona bakoitzeko plazan jarriko duten zapata gorri bakoitzaren ondoan jartzeko mezuok.

300 gaztek baino gehiagok hartu zuten parte 'Bagaoz' Eguneko bazkarian



Hamabi lagunetz osatutako gazte talde batek eta Elgoibarko Udaleko ordezkariak eginiko bileren emaitza da izan da *Bagaoz* eguna. Elgoibarko Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak eta herriko gazteek elkarlanean antolatu zuten zapaturako egitaraua, *Gaztiok ere Bagaoz*

martxan lelopean. 300 lagunetik gora batu ziren bazkaritarako, eta giro onean ospatu zuten eguna. Udaletik zehaztu dutenez, Gazteen Emantzipazio Planaren prozesu parte-hartzailearen bukaera borobildu nahi izan dute jai honekin: "Lana eta, esfortzua bai, baina baita jai-giroan gozatu ere".

Gauz egingo dituzte Elgoibarko tren estazioa berritzeko obrak datozen hiru asteetan

Eusko Jaurlaritzako Garraio Saila Elgoibarko geltokiko nasak eta markesina nagusia berritzen ari da, Euskal Trenbide Sarearen bitartez, eta, bide batez, ingurune horretako argiteria ere berrituko dute. Gauz egingo dute lan azaroaren 27tik aurrera, eta ondo bidean, hiru astez iraungo du obrak. Egin beharreko lanak honako hauek dira: eraispenak, igeltserotza-zimenduak eta nasak zolatzea, markesina eta bizi-lerroa instalatzea, altzairu herdoilgaitzeko altzariak eta burdineria hornitu eta jartzea, urak biltzeko saneamendua, zerrendak pintatzea, gelditseroak eta elementu metalikoak, LED erako argiteria instalatzea eta kutxetak egokitzea. Jarduketa honek 525.000 euroko inbertsioa du, eta exekuzio-fasea aurreratua dago.



Zumaia eta Eibar arteko tren zerbitzua handitzeko sinadura bilketa

Astean zehar Zumaia eta Eibar arteko tren zerbitzuaren maiztasuna handitzeko eskatzeko hasi du sinadura bilketa egunero trena hartzen duen herritar talde batek. Zerbitzu hori ordubete behingoa izan ordez, ordu erdian behin izatea eskatzen dute, gutxienez puntako

orduetan. Salatu dute Donostia-Bilbo ibilbide osoan, Mendaro, Deba eta Arroa bakarrik gelditzen direla 30 minutuko zerbitzu hori gabe. Mendaron, Morroskillo dendan daude sinatzeko orriak, eta Elgoibarren Garaten, Ikus Optikan, Muruamendarazen, Pitxintxun eta Ecenarron.

Eoliko bat irudikatzen deitu du biharko Karakate Bizirik-ek

Green Capital enpresak Karakaten eraiki nahi dituen haize erroten kontrako ekintza antolatu du biharko Karakate Bizirik plataformak. Gipuzkoako Mendiak Aske plataformak deituta Elosun egin zuten bezala, giza kate bat osatu nahi dute Kalegoen plazatik Maalaraino dorre elektriko bat irudikatuz. Horretarako 300 bat lagun inguru behar dituzte eta parte hartzen deitu dituzte herritarrek. Kalegoen plazan elkartzeko dira guztiak 12:30ean eta handik abiatuko dute katea. Antolatzaileek aterki beltz bana hartuta joateko eskatu diete herritarrei. Era berean, bihar, hileko azken zapatuko azokako txosna ere kudeatuko dute Karakate Bizirik plataformakoek.

Sexualitate aske eta osasuntsuari buruzko hitzaldia hilaren 30ean

'Zer egin dezakegu gure haur eta nerabeek sexualitate aske eta osasuntsua izan dezaten?' hitzaldia antolatu dute azaroaren 30erako TREBA Gurasoak eta Elgoibarko Udalak, elkarlanean. Hitzaldia Eider Goiburuk emango du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 17:30ean hasita. Plazeran, zaintzan eta ongizatean oinarritutako sexualitatea garatzen laguntzeko gakoak emango ditu Goiburuk. Izena emateko 943 741 050 telefonora (308 luzapena) deitu behar da edo gazteria@elgoibar.eus helbidera idatzi.



JAIA, EUSKARALDIA HASTEKO

✍️ Ainara Argoitia 📷 Asier Orbea / Ainhoa Andonegi / Jose Ramon Cabrera

Dantzan eta kantuan hasi zuten Euskaraldia zapatuan, Elgoibarren. Plazan egitekoa zuten hasiera-festa Maalara aldatu behar izan zuten lekuz antolatzaileek, eguraldiagatik, eta formato txikiagoan baina aurreikusitako jai-giroan hasi zuten hizkuntza ohituretan eragiteko ariketa kolektiboa. Hirugarren aldi honetan 1.514 lagunek eman dute izena Elgoibarren, bigarren edizioan baino 15 gehiagok. Horietatik 1.085ek (%71,7) ahobizi izateko konpromisoa hartu dute ariketak irauten duen denboran gutxienez eta gainerako 429ak belarriprest (%28,3) izango dira. Sexuari erreparatuta ez dago aldaketarik. Aurten ere, emakumeak gehiago dira, alde handiz: %59,6 eta %40,2 gizonak. Gizonen kopuruak, gainera, puntu bat egin du behera bigarren ediziotik. barren.eus



19.270.000 euroko aurrekontua proposatu du Elgoibarko udal gobernua 2023rako

Iaz baino %8,85 aurrekontu handiagoa proposatu du udal gobernua Elgoibarren 2023rako: 19.270.000 eurokoa. Aipatu dutenez, azaroaren 4an bidali zieten Udalean ordezkariak duten beste bi alderdiei aurrekontu-proposamena eta udalbatzaren datorren asteko osoko bilkuran dute azken erabakia hartzekoa. Udal gobernutik nabarmendu dute aurrekontu "ausartak" direla, baina "zuhurtzia osoz" landutakoak, "ziurgabetasun handiko une bati erantzuteko".

Igoera, batez ere, diru-sarreretan (Dirulaguntzak eta Foru Funtzaren ekarpena) eta inbertsioen atalean aurreikusi dute. Gastuek, aldiz, gora egiten dute, bereziki pertsonal gastuak, hornidura gastuak eta zerbitzuen eta kontratuen kontuak. Handi-handitan honela banatzen dira gastuak: Gastu arruntak: 8.1 milioi (%43,65); pertsonal gastua: 5,1 milioi (%26,95); interesak: 7.000 (%0,03); transferentziak: 2,9 milioi (%15,11); inbertsioak 2,6 milioi (%13,96); eta finantza aktiboak 51.000 (%0,264).

Gizarte ongizatea

Gizarte ongizatera bideratuko den aurrekontua %7,6 handiagoa izatea proposatzen dute, 1.788.804,23 eurokoa. Udal gobernutik aipatu dute eguneko zentroko asteburuetakoz zerbitzua eta mendekotasun egoeran edo arriskuan dauden adinekoentzat Autonomia Sustatzeko Zentrua direla berritasunak aurrekontuan. Era berean zehaztu dute mantentzen direla elkarteei bideratutako dirulaguntzak, etxez-etxeko laguntza zerbitzua (340.679 euro), gizarte larrialdietako laguntzak (200.000 euro), pertsona nagusiei loturiko programak, bazterketa egoerei lotutako aktuzioak eta osasun programak.



AURREKONTUA

Udalaren estrukturalari erreparatuz, honela banatzen da aurrekontua: Herritartasun atala (6.350.136,87 euro, aurrekontu osoaren %32,95); Lurralde atala (7.762.570,15 euro, %40,29) eta Antolakuntza (5.156.416,88 euro, aurrekontuaren %26,76).

INBERTSIO NAGUSIAK

- **King Kong zubiko lehen fasea:** 870.000 euro.
- **Urazandiko biala:** 350.000 euro.
- **Usetxe kaleko eskolen eraistea:** 350.000 euro.
- **Arriaga industrialdearen 3. fasea:** 350.000 euro.
- **EKIOLA (Trantsizio energetikorako eguzki kooperatiba):** 40.000-60.000 Olaizagan plaka fotoboltaikoak jartzeko.
- **Kale konponketak eta urbanizazioa:** 200.000 euro, kaleak asfaltatzeko eta espaloiak berritzeko.
- **Landa gunean egiteko inbertsioak:** 180.000 euro.
- **Iggogailu eta eskailera mekanikoetan hobekuntzak:** 85.000 euro.
- **Hiri altzariak erosi eta berritzea:** 75.000 euro.
- **Jolas parkeetan inbertsioak:** 20.000 euro.
- **Teknologia berriak:** 39.200 euro.

Sustapen ekonomikoa

Sail honek ia %20ko igoera izatea proposatzen dute (guztira, 330.399,93 euro). Honen barruan nabarmendu dituzte AIZU! ostalari elkartearekin sinatuko duten hitzarmena (20.000 euro) eta merkataritzako aurrekontua, %59 haziko dena, 50.000 euroraino.

Trantsizio energetikorako pausoak

Argiteria publikoa LED sistemaduna bihurtzeko lanetarako 230.000 euro gorde dituzte 2023rako, eta eraikin publikoetan plaka fotovoltaikoak jartzeko 60.000 euro. Horrez gain, EKIOLA energia kooperatiba martxan jartzeko pausoak emateko 40.000 euro zehaztu dituzte eta azpimarratu dute Urruzunoko parke berdearen obrak bukatuta egongo direla 2023rako. Beste parke berde bat eta herritarrentzako ortuak sortu nahi dituzte.

Kultura eta kirola

Kultura Sailaren aurrekontuak %15,15 egingo du gora eta guztira 1.082.251,54koa izango da. Horren barruan auzoetako jaietarako aurrekontua aipatu dute. Iaz hirukoiztu egin

zituena, eta aurten mantendu egingo dute kopuru hori. Kirol Patronatuak ere diru gehiago jasoko du, proposamen honen arabera. %26,26 aurrekontu handiagoa izango du 2023an, eta 1.144.800 euro gehiago jasoko ditu. Era berean, Olaizaga kiroldegiko mantentze-gastuak ere handitu egingo dira eta igoera suposatuko du horrek aurrekontuetan. Tasak eta zergak bere horretan mantenduko dituzte.

Herrigintza

Herriko elkarte, eragile eta erakundeei ematen zaizkien dirulaguntzak handitzea proposatuko duela esan dute udal gobernutik. Bestetik, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoan gaineko diagnostikotik eratorritako neurriak martxan jartzeko diru-poltsa mantentzea aurreikusten dute, bai eta gazteek etxebizitzetan alokairurako gastuak ordaintzen laguntzeko dirulaguntzak (30.000 euro) eta etxebizitzetan hobekuntzak egiteko dirulaguntzak ere (120.000 euro). Eta atal honen barruan, merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko sustapen kanpainak ere mantentzea aurreikusten dute eta negozio berriak zabaltzeko dirulaguntza lerro berri bat sortzea.

Aurrekontuak egiteko prozesuari "iluna, zurruna eta pribatiboa" iritzi dio EHBilduk

Udal gobernuak egindako aurrekontu-proposamenaren harira prentsa-oharra argitaratu du Elgoibarko EHBilduk eta salatu du aurrekontuak egiteko prozesua "iluna, zurruna eta pribatiboa" dela. "EH Bilduk uste du aurrekontuen diseinatze fasean herrian dauden elkarte eta indar aktiboen iritziak jaso behar direla eta herritarrei orokorrean alde zuzeneko informazioa eman". Prozesuak ez eze, aurrekontu-proposamenak berak ere ez ditu ase. "Aurrekontu zaharkitu baten aurrean gaude", jaso dute prentsa-oharrean. Haien esanetan, "urteetako gobernu inertiari" erantzuten dio aurrekontu-proposamenak, "elgoibartarrei eragiten dieten arazo berriei erantzun eraginkorrak emateko beharrari baino gehiago".

EH Bilduren ustez, gizarte-politika, aldaketa klimatikoa eta trantsizio energetikoa, hizkuntza politika eta gazte politika, besteak beste, ez daude behar bezala landuta udal gobernuak aurkeztutako aurrekontu-proposamenen. "EAJ-PNVren eta PSEren aurrekontu-politiken adibide argigarria bizi berri dugu urrian. Inflazioak Udala ere jo du eta fakturak handitu dira. Nola konpondu dute? Gastu sozialera bideratuta zeuden partida batzuetatik dirua kendu eta argia, gasa edo beste faktura batzuk ordaintzeko erabilita. Herritarren beharrak handitu diren honetan haiei gehiago bideratu beharrean, gastu soziala murriztu!", jaso dute, eta nabarmendu dute ez daudela jardunbide horrekin konforme. Hala, aurreratu dute datorren asteko osoko bilkuran ez dutela aurrekontu proiektua babestuko.

ETXEBIZITZEN ENERGIA-AUTODIAGNOSTIKOA

“Norberak bere etxebizitzaren autodiagnostikoa egin ahal izateko irizpideak emango ditugu”

DebegesaK etxebizitzaren energia-autodiagnostikorako egiaztapen-zerrenda lantzen dihardu.

Zergatik jarri duzue martxan ekimen hau?

Energiaren prezioak demaseko gorakada izan du eta Debegesan ditugun Birgaitze- eta Energia-zerbitzuetan kontsulten gorakada egon dela ikusi dugu. Jendea arduratuta dago eta bi gauza jakin nahi dituzte batez ere: batetik, nola aurreztu dezaketen; eta bestetik, energia era berriztagarriago batean nola ekoiztu dezaketen. Beraz, etxe guztietara ezin garenez iritsi irtenbide pertsonalizatuak ematera, pentsatu genuen interesgarria izan zitekeela gida bat sortzea, norberak irizpide batzuk eduki ditzan, gero bere kabuz etxebizitzaren hasierako diagnostikoa egiteko.

Gida sortzeko orduan, zein informazio eskatzen diezue parte-hartzaileei?

Gida tutorizazio-prozesu baten bitartez sortzen dugu. Izan ere, esperientzia errealen bitartez sortzen da. Horretarako, prozesu honetan parte hartzeko prest dauden etxebizitzak behar ditugu. Izena ematen dutenean, enpresa bat euren etxebizitzetara joango da bisita egitera eta bizilagunek informazio bat eduki beharko dute prest. Hala nola, azken hilabeteetako faktura energetikoak eta kontsumo ohiturak. Bestetik, energia kontsumo iturri diren elementuak zeintzuk diren begiratu dute (argiteria, etxetresna elektrikoak...) eta elementu horiek nola erabiltzen diren informatzea garrantzitsua da gero planteatuko diren ekintzak benetan eragingarriak izan daitezen.

Gida horrek zein eduki izango ditu herritarrentzat?

Tutorizatzen ditugun etxebizitzek energiaren diagnostikoa izango dute. Bertan, etxebizitza



horretara egokituta egongo diren ohituren, inbertsioen, energia berriztagarrien eta dirulaguntzen inguruko gomendioak eta ekintza-plan bat jasoko dira.

Zertarako balioko du horrek guztiak?


Lehentasunak markatzeko, eragin elementuak non ditugun jakiteko eta, gutxi gorabehera, arlo energetikoan ekintzarik garrantzitsuenak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko. Gero, tutorizazio prozesuarekin ikasiko dugu informazio eraginkorra modu errazean nola eman daitekeen eta, horrela, irizpide batzuk emanez jakinarazi nahi dugu hori, bakoitzak bere autodiagnostikoa egiteko baliabideak izan ditzan.

Etxebizitza gehiagok izena eman dezakete oraindik ekimen honetan?

Bai. Interesa dutenek agenda2030@debegesa.eus helbidera idatzi edo 943 82 01 10 telefonora deitu dezakete.




57. DURANGOKO AZOKA
 2022ko abenduaren 7tik 11ra
www.durangokoazoka.eus



EZTANDA!



EZTANDA!



**Sorkuntzaren eta
 jaiaren eztanda**

Durangoko Azokak "eztanDA!" egingo du abenduaren 7tik 11ra

Azken bi urteotako murrizketak alde batera lagata, ohiko formatua berreskuratuko du aurten Durangoko Azokak. Abenduaren 7tik 11ra egingo da, *EztanDa!* lelopean, eta, aurrez aurreko salmentaz gain, online dendari ere eutsiko dio.

Gerediaga elkarteko presidente Nerea Mujikak azaldu duenez, 57. Durangoko Azokan euskal kulturaren "eztanda" biziko da: "Sorkuntzaren eta jaiaren eztanda izango da; Durango osotik eta Euskal Herri osorako zabalduko den eztanda. Bost egunez iraungo duen eztanda".

Idea horri tiraka sortu du, hain justu, Ruben Ramos diseinatzaileak aurtengo azokarako kartela. "Ilustrazioak unibertsoaren eta Big Bangaren hedapenera eramaten gaitu. Inklusibitatearen baitan, pertsona ezberdinen (ez emakume, ez gizon) ideiak, ilusioak eta norberaren imajinario koloreduna irudikatu dut. Kulturak berak, bai literaturak, bai musikak, beste leku batera eramaten gaituen isla".

Kartela ez ezik, DA! irudi korporatiboarekin batera zabalduko den ikono berri bat ere sortu du egileak aurtengo ediziorako: "Izar moduko ikono bat da, eztanda irudikatzen duena".



Kulturazaleak iazko azokan.

Ohiko guneak

Ikasle Goizarekin emango diote hasiera egitarauari hilaren 7an. Bertaratuko diren milaka ikasleek hainbat jardueratan parte hartzeko aukera izango dute –komikiak sortzeko tailerrean edo *PortaDa!* erronkan, esaterako–. Eta, lehen aldiz, hezitzaileek tailerrak jasoko dituzte –hezkuntzarako baliabide digital libreei buruzko saioan eta euskal kulturaren transmisioaren gaineko solasaldian–.

Horrez gain, bost eguneko kultura programazioa izango da bertaratzen direnentzat, hainbat gunetan banatuta: Irudienea,

Saguanbara, Ahotsenea, Kabi@, Talaia eta Szenatokia. Askotariko hitzorduek egingo dira bertan aukeran, beste behin ere.

Ahotseneako eszenatokian, adibidez, 47 talde arituko dira eta, azken urteetan bezalaxe, zuzeneko emanaldiak Plateruenan izango dira. Sarrera doakoa izango da eta ez da beharrezkoa izango aldeztetik izena ematea. "Ahotsenea sortzaileen topalekuak 15 urte beteko ditu aurten eta ospakizun berezi honetarako bost eguneko musika-maratoia antolatu dugu", nabarmendu dute guneko arduradunek.

Online denda

Landako guneko aurrez aurreko erakusmahaietz gain, aurten ere erosketak etxetik egiteko aukera egingo da abenduaren 7tik 10era. Denda digitalean –*durangokoazoka.eus* atarian– azokako nobedade guztiak egingo dira eskuragarri. Eta behin azoka amaituta, abenduaren 11tik aurrera, *Zu non, han Da!* egitasmoaren bitartez, Euskal Herriko hamaika dendatan Durangon aurkeztuko diren nobedadeak erosteko aukera egingo da, hirugarren urtez. Horrez gain, liburu aurkezpenak ere antolatuko dira hainbat saltokitan.

Argitaratzailea: Debabarreneko Komunikazio Taldea

Azala: Ruben Ramos

Erredakzioa: Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

Diseinua eta maketazioa: Oier Larreategi

Tirada: 18.710 ale



"Kulturari ekarpenik handiena sortzaile eta kulturazaleek egiten diote"

BEÑAT GAZTELURRUTIA GEREDIAGA ELKARTEKO KIDEA

Normaltasun egoera berreskuratuko du aurten Durangoko Azokak, eta horren nondik norakoak azaldu ditu Gerediaga Elkarteko Beñat Gaztelurrutiak.

Bi urteren ondoren, betiko formatua berreskuratuko du azokak. Pozik?

Bai, jakina. Azokarentzat urte zailak izan dira, gizarte osoarentzat izan diren moduan. Sasoi nahasiotan guztiok daukagu gauzak bere onera etorriko diren ametsa. Baina, susmoa dut, aurrerantzean dena izango dela gero eta desberdinagoa.

Zer eskainiko du aurten azokak?

Azoka barruko espazioaren antolamenduan aldaketa batzuk egin ditugu, liburuak eta musika bereiztuta. Apalategi bat ere montatuko dugu, euskarazko liburu berriak eskuartean hartu eta kontsultatzeke. Diskoen kasuan, QR kode bidez disko bakoitzeko kanta bat entzuteko aukera egongo da. Gauza gehiago ere bai, 250 aurkezpenetik gora gune eta hainbat diziplinatan eta abar. Onena bertara etorri eta norberak ikustea da.

Zein da Durangoko Azokak euskal kulturari egiten dion ekarpena?

Kulturari ekarpenik handiena sortzaileek eta kulturazaleek egiten diote. Azokaren lana da harreman hori indartzea, batzuei bere lana erakusteko plaza emanez eta bes-



Beñat Gaztelurrutia. ANBOTO

teei bila aritzeko bidea erakutsiz. Azokak egiten duen lan hori berri egiten dute urtean zehar hainbat eragilek. Dena den, ez naiz oso oker ibiliko esaten badut euskal kulturaren agerraldi handienetarikoa dela Azoka, eta hori ekarpen handia da, euskal kultura existitzen den froga garbia delako eta euskal kultura badela defendatzen dugunok indarrez betetzen gaituelako. **Pandemiak kulturagintza jipoitu zuen. Bi urteko etenaldi horri eman al zaio buelta?**

Ez nuke esango euskal kulturaren arazorik handiena pandemiaren jipoia denik. Benetako arazoa da ez garelana nahikoa kulturazale kul-

tur-ekosistema osasuntsu bat mantentzeko. Horri ez badiogu heltzen bere ertz guztietatik, jai daukagu.

Datuen arabera, papera izugarri garestitu da, liburuak ez dira irakurtzen, diskoak ez dira saltzen... badirudi gauza asko kontra dituela Durangoko azokak. Zein espektatiba duzue aurtengorako?

Ertz asko ikutu dituzu galdera bakarrean. Paperaren garestitzea bizitzaren garestitzearekin lotu behar da, eta erosahalmena jaitzen denean badakigu kultura izaten dela kaltetuenetako bat. Diskoak ez saltzea digitalizaioarekin ere lotu behar da. Digitalizazioak gauza onak ekarri ditu, musikagintza "demokratizatu" egin du, autoekozipena sustatu du, bide berriak zabaldu ditu. Baina, aldi berean, euskarri fisikoa desgeretzeko bidean jarri du eta, horrekin batera, sortzailearentzako diru-sarrerak. Bistan da arazoak asko direla eta Azokak berak bakarrik ez diela irtenbiderik emango guztiei. Uste dut asko hausnartu eta pausoak adostu behar direla eragileen artean, eta horrek eskatzen du hausnarketa zintzoak egitea eta eskuzabaltasunez jokatzeta.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Etorkizunari baikortasunez begiratu behar zaio beti. Ez gaitetzen autobetetako profetia baten jausi. Euskal kulturak egiturazko arazoak ditu, baina lanean gogoz ari den balio handiko jende pila bat ere bai. Nik neuk horri heltzen diot. Aurtengo Azoka behintzat ederra izango da, eta datozenak ederragoak izan daitezen lanean jarraituko dugu.

"Euskal kulturaren agerraldi handienetarikoa da azoka"

Debarreneko uzta

DEBA - ITZIAR

LITERATURA



ERIKA LAGOMA POMBAR ETA ESTITXU FERNANDEZ MARITXALAR 'M ama* eme* ume*'

Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.



JON ABRIL OLAETXEA 'Isildutako eskuak. Emakume langileak gerra ondoko Euskal Herrian'

Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.


TENE MUJIKA UDAZKENEKO ARGITAN

Cira Crespo




CIRA CRESPO 'Tene Mujika. Udazkeneko argitan'

Debako Udala. Durangon Elkar-ek salduko du bere postuan.




NEREA LOIOLA '7G udalekuak'

Erein.
Aurkezpena: abenduak 10, larunbata, 13:30. Ahotsenean.



NEREA LOIOLA 'Epicentro'

Gaztelera. Erein.



NEREA LOIOLA 'Naian'

Erein.

Aurkezpena: abenduak 10, larunbata, 17:00. Saguanbaran.

MUSIKA



**NEOMAK TALDEA** 'Neomak'

Airaka.

Aurkezpena: abenduak 8, osteguna, 15:40. Ahotsenean.

EIBAR**MUSIKA****MICE** 'Lautada'


Forbidden Colours.

Kokein
Atomika₅**KOKEIN** 'Atomika'

Autoekoitzia.

**MARKOS UNTZETA** 'Ekilibrista'

Gaztelupeko Hotsak.

**SUTAGAR** 'Alarma'


Autoekoitzia.

**LORELEI** 'Ekografiak'

Elkar.

ELGOIBAR - MENDARO**LITERATURA****UXUE ALBERDI** 'La belle'


Elkar argitaletxea.

Itzulpena:
Danele SarriugarteHitzarmak:
Joseba Sarrionandia
Angela Davis


Katakarak

DANELE SARRIUGARTE 'Assata
shakur autobiografia bat'

Itzulpena. Katakarak.

**DANELE SARRIUGARTE** 'Hamahiru
ipuin'Luisa Carnesen ipuinen itzulpena.
Erein.**MUSIKA****JON GURRUTXAGA** 'Belar Hostoak
I&II'

Elkar. Txomin Artolak, Walt Whitmanen testuekin, 1978an argitaratu zuen Belar Hostoak diskoaren moldaketa berria kaleratu du Elkar argitaletxeak lan bikoitz honetan. Artolak Mixel Ducau, Jean Phocas, Beñat Amorena eta Robert Suhas izan zituen bidelagun 78an. Lan hari keinua Jon Gurrutzagak, Urbil Artolak, Dani Venegasek,



Antxon Sarasuak eta Andoni Etxebestek egin diote oraingoan.



MARACA DIABLO 'Maraca diablo'
Screaminguy records.

ERMUA

LITERATURA

TXABI ARNAL 'Hiru lehoi'
Elkar argitaletxea.

MUTRIKU

MUSIKA



SAIA GOAIT 'Miazkatu'

Autoekoitzia. Musika Zuzenean erakusmahaian egongo dira diska saltzen.



DELIRIUM TREMENS. 'Hordago'
Mauka musikagintza.
Aurkezpena: abenduak 7, asteazkena,
21:30. Ahotsenean.

SORALUZE


MUSIKA

PAUL SAN MARTIN 'Single'
Gaztelupeko Hotsak.



MORAU ETA BEÑARDO 'Ardo'
Disko liburua. Gaztelupeko Hotsak.


SYMBIOSIS 5 Jazz Getxo
Gaztelupeko Hotsak.



MAINLANDER 'Mainlander'
Gaztelupeko Hotsak.



KIKE ARZA ELECTRIC QUARTET
'Biharko Mendekaitz'
Gaztelupeko Hotsak.



ORGANIZING 'Short Stories'
Gaztelupeko Hotsak.



THE NEW JAZZ COLLECTIVE Lucio
MARCO BELLIZZI
JUAN DE DIEGO
FREDRIK PELAEZ
HILARIO RODEIRO



THE NEW JAZZ COLECTIVE 'Lucio Urtubia'

Gaztelupeko Hotsak.



RS FAKTOR (RUBEN SALVADOR) 'Equanimity'

Gaztelupeko Hotsak.

JON PIRIS & IÑAR SASTRE 'Pasieran'

Gaztelupeko Hotsak.



XAHU 'Gero gerokoak'

Gaztelupeko Hotsak.




HUTSUN + JEL TRIO Artze

Gaztelupeko Hotsak.



57. DURANGOKO AZOKA ONLINE
www.durangokoazoka.eus



**Online denda
 zabalik
 abenduaren 7tik
 10era**

**Nobedade
 guztiak
 eskuragarri**

ESTANDA!



"15 bat disko argitaratzen ditugu urtean, seguru aski, Euskal Herrian gehien"

UBANE UZIN GAZTELUPEKO HOTSAK DISKOETXEKO KUDEATZAILEA

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak disko ugari izango ditu Durangoko Azokan salgai, euren banatzaile den Elkar argitaletxearen stand-ean; jazz asko, blues diskoak, disko-liburu tematikoa... musika mota asko eta artista mordoxkaren lanak ondu dituzte azokarako.

Zelako uzta eramango duzue Durangora?

Askotarikoa. Andoni Tolosa Morauk eta Beñardok ateratako ardoari buruzko disko-liburutik hasi, Marcos Untzeta eibartarraren diskoetik segi, blues diskoak, jazz asko... Bestalde, Txuma Murugarrenena ere badugu, baina atzeratu egin da.

Artista asko egotea kasualitatea da?

Gaur egun, musikak dituen alda-ketekin, dibertsifikatu egin beharra dago; guk horrela egin dugu eta momentuz, ondo funtzionatzen digu.

Zergatik dibertsifikatu beharra?

Musika euskarri fisikoan geroago eta gutxiago saltzen da. Lehen ateratzen zenuen produktu gutxi eta horietatik asko saltzen zen; orain, berriz, produktu gehiago atera behar dira, izan ere, horietatik gutxiago saltzen da.

Diskoen ezaugarriak ere aldatu dira? Motzagoak dira...

Ez, lehengo modukoak. Azken batean, diskoak zuzenekoan defendatu behar dira eta zuzenekoak ordubete pasako kontzertuak izaten dira.

Aipatu dituzun izenen artean badaude aspaldiko klasikoak, 'Morau', adibidez...

Bai, Andoni Tolosa etxekoa da, aspaldi ezagutzen dugu. Gainera, oso emanaldi kuriozosa egin du, ardoaren inguruko tematikoa, Biba Ardoak-ekin elkarlanean... Soraluzen izango da emanaldia abenduko lehen asteburuan; beste hainbat lekutan ardo kata eta guzti egiten du. Adibidez, Chillida Lekun, Biba Ardoak-ek ardoa ipini zuen eta Chillida Lekuk pintxoak, musika entzutera joatea baino gehiago izan zen, esperientzia oso bat.

Aurten, baina, ez zarete egongo Durangoko Azokan Gaztelupeko Hotsak moduan...

Fisikoki ez. Gaur egun, musika enpresa guztiak orokorrean txikiak dira; guk bestelako lan karga han-

dia dugu Gabonen buelta honetan eta ezin gara biderkatu. Elkar da gure banatzailea eta han egongo dira gure produktuak.

Bestalde, gauza asko eramango dituzue, baina beste asko ezin dituzue eraman, ezta?

Horrela da. Durangoko Azokara, hemengo musikariak izateaz gainera, euskarazko produkzioa eraman behar da. Guk, berriz, produkzio asko dugu ingelesez, blue-sa, batik bat, eta horrek han ez dauka lekurik.

Liburugintza ere lantzen duzue; hortik eramango duzue zerbait?

Ez. 2022ko erabakietako bat izan da libururik ez publikatzea. Guk bi urte daramatzagu digitalizatze prozesuan eta ez dugu gaitasunik denean egoteko. Musika salmenta bera digitalera doa.

Buruhauste handia da?

Hori baino, beste lan batzuk egitea eskatzen duela. Gainera guri musika fisikoa eta zuzenekoak gustatzen zaigu, oso arrotza egiten zaigu bestea.

Zailtasunak zailtasun, Euskal Herrian gehien produzitzen duen diskoetxea da Gaztelupeko Hotsak?

"Gaur egun produktu gehiago atera behar dira, izan ere, horietatik gutxiago saltzen da"



Ubane Uzin Durangoko Azokara eramango dituzten produktuetako batzuekin. FERNAN OREGI.

Bai, seguru aski bai. Urtean erreferentzia asko ateratzen ditugu, gutxiago saltzean disko gehiago atera behar ditugulako urtean salmenta iturriak antzerakoak izateko. Urtebetean, 15 bat disko (erreferentzia) argitaratzen ditugu.

Hala ere, zuen helburu nagusia ez da izan inoiz salmenta handiak lortzea edo udako kantak sortzea...

Bueno, hortik bizi gara, baina beti izan gara ibilbide luzeko produktuak ateratzekoak. Gu gara Serie B. Eta ohore handiarekin, gainera.

Zenbat erreferentzia ditu Gazte-lupeko Hotsak diskoetxeak?

450etik gora, 90eko hamarkadatik hona.

Eta zeuen lekuari eusten segitzen duzue.

Bai, geroago eta gehiago gaude espezializatuta musika beltzean eta oso-oso gertuko diren euskal artistekin. Egia esan, beti esaten dugu ez garela sartu behar gauza berrietan, baina batzuetan etortzen zaizkigu gauza berriak, bigundu egiten gara eta aurrera egiten dugu. **Artista berriendako, baina, bazarete erreferentzia...**

Bai, baina geroago eta zailagoa da artista berri batekin aurrera egitea. Nik uste dut musikagintzan, disko eta kantu on bat egin ahal dela,

"Durangoko Azokak beti ematen du zerbait eta produktu berriak ateratzeko epe bat jartzen du"

baina gero hori taula gainean defendatu egin behar da eta gaur egun benetan zaila da. Antzokietakoek nahi dute antzokiak beteko dituzten artistak. Eta halako gutxi daude. Lehen, musika taldeek bira egiten zutenean, Soraluzeko Gaztetxea bira horren barruan zegoen, kontzertu areto modura. Edo txosnaguneak ziren sasoi batean artista berriendako aukerak. Orain, berriz, txosnaguneetara ere talde handiak joaten dira. Hasi-berri batendako oso zaila da. Eta egon badaude. Begira Debagoienan egiten ari diren Danbakan zenbat talde dauden. Baina, leku ofizialetan taldeek bete behar dituzten baldintzak oso nekezak dira: Gizarte Segurantzza, nominak... ordaindu behar dituzte, ondorioz, amateurismoa asko moztu da. Amateurrek ere profesionalen pareko baldintzak bete behar dituzte eta hori musikagile edo musika talde berri batendako benetan zaila da.

Durangoko Azokara bueltatuz, ematen dio bultzada musikagintzari?

Nik uste dut beti ematen duela zerbait. Eta gainera, epe bat jartzen du, eta produktu berriak Durangoko Azokari begira egiten dira. Gauzak asko aldatu dira, baina Durangoko Azoka bera ere asko aldatzen ari dira.

"Garenak gara, iraganean halakoak izan ginelako"

ASIER SERRANO LORELEI

Lorelei musika taldeak 'Ekografiak' (Elkar, 2022) izeneko diskoa kaleratu du taldearen sorreraren 25. urteurrenean.



Zerk bultzatu zaituzte bi hamar-kadaren ondoren disko berria kaleratzera?

Orain dela hiru urte kontzertu batzuk emateko elkartu ginen, ilusioarekin eta, batez ere, herdoila kentzeko. Hamar kontzertu izan behar ziren, baina pandemiaren ondorioz hiru eman genituen. Oso harrera ona izan genuen. Gero, bakoitzak bere odisea edo miseria pertsonalak pasa zituen. Niri, adibidez, lepoko ebakuntza larria egin zidaten. Ondo atera zen, baina min neuropatikoa eratu zitzaidan besoan eta ez negoen ezertarako. Orain animoz hobeto nago, baina joan den urtea gogorra izan zen. Orduan, Nortonek, animatzeko edo, diskoa grabatzea proposatu zidan.

Eta baiezkoa eman zenion?

Nahiz eta sormenerako pattal egon, Nortonek lehenengo abestiaren doinua pasa zidanean, nagitasunez, baina heldu egin nion. Barealdia sentitu nuen, gertatzen

ari zitzaidanaz berba egiten nuelako. Diskoan sentimendu unibertsalak jarri nahi izan ditugu, baina abiapuntu oso intimotik. Modu terapeutikoan edo, beste kantuak konposatzen hasi nintzen Nortonekin eta disko hau "behin betiko diskoa" izan zitekeela pentsatu nuen. Ez azkena, baina bai herentzia moduan lagatzeko diskoa. Loreleik eman didana eta niretzat duen esanahia islatu nahi izan dut bertan.

Nolakoa izan da grabaketa?

Iazko abenduan eta urtarrilean grabatu genuen diskoa, eta orain arte sekretuan eduki dugu. Ia urtebete egon da izozkailuan, minak

"Diskoan sentimendu unibertsalak jarri nahi izan ditugu, baina abiapuntu oso intimotik"

noiz baretuko eta noiz indarberrituko zain, irailan argitaratu arte. Prozesu lasaia izan da. Sasoi hauetan diskoek beste toki bat hartu dute eta Elkar argitaletxeok esaten ziguten zaharrak garela eta presarik ez dugula. Beraz, lasai hartu dugu, beste arlo batzuetan indarra jarri (diskoaren azalean, adibidez) eta artefaktuaz gehiago gozatu dugu.

Aita izan zara berriki. Horrekin zerikusia du 'Ekografiak' izenburuak?

Horrekin lotuta dago, baina era berean ez. Azken urteetan proba mordoa egin dizkidate eta ekografie saso batetako tarot irakurleen zentzua hartu diet. Ekografie oihuak jaurtitzen dituzte eta horren erantzuna jasotzen dute. Kontzeptu horretan sakondu nahi izan dugu. Izan ere, adin honetan gure gorputzen mugimenduak neurtzen ditu eta, besetik, iraganean botatako oihuak gaur egun nola jasotzen ditugun



Mikel Gorosabel 'Norton' eta Asier Serrano berriz elkartu dira Loreleiren disko berria sortzeko.

urtetan isilik egon ondoren publikoak beso zabalik hartu zaituztelako. Nola bizi duzue hori?

Niretzat oso hunkigarria izan zen kontzertuak berriz ematea. Andoainen izan zen lehen kontzertua eta ez negoen urduri, shock egoe-ran baizik. Ez gatoz gazteei lekua kentzera, hori ez da gure helburua, ezta belaunaldi berriak konkistatzera ere, baina ikustea gure belaunaldiko jende hori kontzertuetara etorri zela, ez dakit gaztetzera edo nostalgia musukatzeraredo, izugarria izan zen.

Zuen musika ondo zahartu den seinale?

Orain dela 25 urte, guk ez dakit, baina Gaztelupeko Hotsakek asko arriskatu zuen. 90. hamarkadan ez zen ohikoa eta zailtasunak zeuden gure eskaintza jasotzeko. Hau da, poesia eta pop-rock musika eskaintzea, heavy eta punk eszena zegoenean. Sasoi horretan diskoen salmentek agintzen zuten eta, gure harridurarako, gureak funtzionatu zuen.

"Ez azkena, baina disko hau "behin betiko diskoa" izan zitekeela pentsatu nuen"

adierazten ditu. Orain garenak gara, iraganean halakoak izan ginelako.

Letretara joz, zertaz jardun duzu?

Ikuspuntu pertsonalak azaltzen dira azalean eta letretan, baina nahiago dugu entzuleek berera egokitzea. Azken neurrian, ni guztiak dira ezberdin, berdinak dire-

lako. Abestiek galderei buruz eta Eibarko haurtzaroz berba egiten dute, besteak beste. Batez ere, nola ihes egin dezakegun zuri-bel-tzetik koloreetara. Hau da, guk aukeratu dezakegula ekografia margotzea.

Iraganean oihartzun indartsua laga zuen Loreleik, hainbeste



Antxon Sarasua, Mikel Gorosabel, Asier Serrano eta Loiola Madera.

Ahotseneako egitaraua

Asteazkena 07

OLAIA INZIARTE 14:30-15:00



MARACA DIABLO 15:40-16:10

ZAKILL 16:50-17:20

SUA 18:00-18:30

BOLBORA 19:10-19:40

GOXUA N'SALSA 20:20-20:50



DELIRIUM TREMENS 21:30-22:00

Osteguna 08

BILAKA 11:00-11:30

PIZTIAK 12:10-12:40

INES OSINAGA 13:20-13:50

RODEO 14:30-15:00



NEOMAK 15:40-16:10

HIBAI 16:50-17:20

KURKUMA 18:00-18:30

WILLIS DRUMMOND 19:10-19:40

KRISTONAK 20:20-20:50

SUTAN 21:30-22:00

Ostirala 09

LUMI 11:00-11:30

ILARGI 12:10-12:40

AGUR 13:20-13:50

MIRUA 14:30-15:00

XSAKARA 15:40-16:10

MUGAN 16:50-17:20



KOKEIN 18:00-18:30

KEIA 19:10-19:40



MICE 20:20-20:50

EZPALAK 21:30-22:00

Larunbata 10

PASADENA 11:00-11:30

ASSATA 12:10-12:40

ASLA 13:20-13:50

KYXO 14:30-15:00

PERU GALBETE 15:40-16:10

ESTI MARKEZ 16:50-17:20

DUKKHA 19:10-19:40



BENGO 20:20-20:50



ØDEI 21:30-22:00

Igandea 11

ARIMA SOUL 11:00-11:30

FUFU 12:10-12:40

ORBEL 13:20-13:50

TXOST! 14:30-15:00

WATSON 15:40-16:10

IRTERA 16:50-17:20



MERINA GRIS 18:00-18:30

JANUS LESTER 19:10-19:40

BURUTIK 20:20-20:50

MAIRU 21:30-22:00

Zer



duzu ulertu nahi?

Modu askotan esan daiteke EZ, baina modu bakarrean ulertu.

SOILIK BAI DA BAIETZ.

azaroak **25** Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111 
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



Ezkerde, eraginea, hiru orain



araba  alava
Hara etorriko da... Hara etorriko da...



BUELTAN DA ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA!

1.000 erregalu baino gehiago...

Aurten bai! Aurreko urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu **Kalegoen plazan**. Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Ezti poteak



Nesezerrak



Irrati-erlojuak



Aterkiak



Motxilak



Ikastolarako pontxoak



Jolasak



Opari sortak




Ohar-koadernoak



Marrazkiak



 643 499 169

 943 741 626

 elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

JOSETXU RIVIERE

Gizonduz elkarteko kidea

✍️ Ainhoa Andonegi



Josetxu Riviere Aranda (Arrasate, 1962) berdintasun, genero eta maskulinitate gaietan aditua da, eta 2008. urtetik Emakunderen 'Gizonduz' egitasmoaren koordinatzailea da. Gizonak Berdintasunaren Alde sareko kidea da eta baita Aizak maskulinitate aholkularitzakoa ere. Indarkeria Matxistaren kontrako eguna da gaur, eta horren harira antolatu duten ekitaldien barruan hitzaldia eman du aste honetan Elgoibarko Jubilatuen Biltokian: 'Gizonezkoak eta berdintasunaren erronka XXI. mendean'. Besteak beste, feminismoaren barruan gizonezkoek duten eta izan beharko luketen paperaren inguruan berba egin du.

“Borroka feminista gizonezkoen kontua ere badela sinetsi behar dugu”

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren harira zabaldu duten mezua gizonezkoek zuzendutakoa izan da bereziki, aurtun. Zein izan behar luke zure ustez gizonezkoen papera mugimendu feministan?

Aurtengo programaren helburuetako bat da gizonezkoak berdintasunaren gaiarekin ahalik eta gehien sentsibilizatzea, denon artean gizarte berdinazale baterako pausoak emateko, baina gizonen feminismoan izan behar duten paperari buruzko eztabaida oso irekia da. Niri garrantzitsua iruditzen zait gizonen feminismoa den bezala ulertzea, hau da, berdintasuna helburu duen korrante bat bezala ulertzea. Feminismoaren barruan ere eztabaidak daudela jakin arren, funtsean berdintasunean eraikitako gizarte helburu duen mugimendua da, eta horrela ulertzen badugu, feminismoa gizonen kontua ere badela konturatuko gara. Generoak ez du diskriminaziorako aukerarik ematen, eta behin hori onartuta, emakumezkoen giza-eskubideekin ere identifikatuko gara. Niretzako

interesgarria da feminismoaren barruan espazio berriak zabaltzea jende desberdinak parte har dezan, izan ere, arriskua egoten da batzuetan espazio publikoaren banaketan. Gizonezkoek aktiboki parte hartu behar dugu berdintasuna sustatzen duten korranteetan.

Gizonei zuzendutako politikak ez al daude gehiago zuzenduta gustatuko litzaiukeen gizonei eta ez hainbeste ditugun gizonei?

Helburua gizonezko ororengana iristea da eta guztien konpromisoa lortzea. Askorengana iritsi gara dagoeneko, eta gizonezko asko konprometitu dira feminismoarekin. Gizonezkoek propio bezala hartu behar dute indarkeria matxistaren kontrako borroka, hori ez delako emakumezkoen kontua soilik. Gizonezko askok aldatu dute beren jarrera eta gero eta gehiago dira mobilizazioetan parte hartzen dutenak, eta nik uste hori dela azken batean kanpaina horien helburua. Badakigu badagoela oraindik bere posturari tinko eusten dion gizonezkoen talde

bat, baina gizarte matxista eta patriarkatuan hezi gaituzten asko aldatu garen moduan, uste dut kanpaina hauei esker, beste askok ere aldatuko dutela euren jarrera, edo gutxienez hausnartuko dutela gaiari buruz. Borroka feminista gizonen kontua ere badela sinetsi behar dugu.

Gure komunitate txikietan (Mendaron eta Elgoibarren, adibidez) zer estrategia ditugu eskura gizonak feminismoa erakartzeko, eta zeintzuk erabili beharko genituzke?

Gure programaren barruan atera dugun ondorioetako bat izan da gizonen dauden lekura joan behar dugula. Hitzaldi edo tailerretan gizonen presentzia txikia izaten da, %15 ingurukoa, eta beraiek etortzen ez direnez, beraiek dauden lekura joatea da garrantzitsua. Erakundeetara, lantegietara, jubilatuen egoitzetara... Eta beraien hizkuntzan hitz egin behar zaie egoeraren berri emateko, izan ere, gaur egun oraindik beharrezkoa da azalpenak ematea gizartearen duten lekuari buruz, zein abantaila dituzten... Baina hitz egin behar da baita ere generoak sortzen dizkien eragozpenei buruz. Iruditzen zait bi erreflexio garrantzitsu egin behar ditugula: batetik, dauden lekuetan hitz egin behar dugu, eta bestetik, jarrera aldaketa denoi eragiten digun kontua dela azaldu behar zaie. Era berean, generoak gizonen ere eragiten die, eta horregatik oso interesgarria da gizonen ahotsa ere entzutea.

Gizonen batek zertan aldatzen du bere jarrera feminismoarekin identifikatzen denean?

Aldaketak maila desberdinetan egiten dira. Batetik, maila indibidualko aldaketak ditugu, norbere barruan ematen direnak. Aldaketa horiei esker gauza asko egin ditzakegu, esaterako, zaintzaren ardurak geuregan hartzen hasi, espazio publikoak partekatu, indarkeria matxistaren kontrako jarrerak hartu... Norbanakoaren aldaketa horrek berak konpromiso zehatzak hartzeko aukera ematen digu. Bestetik, balio kolektiboen aldaketa egin behar da, eta hori ere oinarritzkoa da. Maila ekonomiko, politikoa eta sozialean egin behar dira aldaketak berdintasunaren alde, eta ez dauka zertan esparru batek bestearen zain egon, ez; esparru bakoitzean eman daitezke

"Generoak gizonen ere eragiten die, eta horregatik, oso interesgarria da gizonen ahotsa ere entzutea"

aldaketak, eta bakoitzak bere aldetik ahalbidetu dezake konpromisoak aldatzea. Azken batean, berdintasunari beste modu batean begiratu behar zaio. Askotan kosta egiten zaigu ikustea nola eragiten digun baita ere abantaila egoera batean bizitzeak. Bizitza eredu horrek berak gizoni askotan kalterako eragiten digu, eta maskulinitate tradizionalak ere kalte egin digu, bai modu indibidualean eta baita kolektiboan ere. Horretaz jabetzea ere garrantzitsua da, izan ere askotan pentsatzen dugu maskulinitate tradizionalaren ereduak abantaila soziala ematen diola gizonen, baina kasu askotan ez da horrela gertatzen.

'Soilik baietz da baietz' legearen interpretazio bati helduta, zenbait sexu erasotzaileen zigorrak arintzen ari dira epaile batzuk. Zer duzu esateko?

Debate konplexua da, eta ertz asko dituen kontua. Legea onartu aurretik feminismoaren barruan ere bazeuden ahots kritikoak eta zigorren gogortzea zalantzan jartzen zutenak. Badaude beste bide batzuk, zigorretan oinarritzen ez direnak eta nik uste bide horretan oso adi egon behar dugula. Ni gertuago nago zigorra gogortzea eraginkorra ez dela uste duten horien alde. Nire ustez sistema penala gogortzeak ez du ziurtatuko indarkeria matxista desagertzea, eta fokua beste formula batzuetan jarri behar dela iruditzen zait. Heziketan, balioetan, programa berezietan... Berdintasunaren alorrean lan egiten dugunok mezuarekin asmatu behar dugu. Debatea kartzela zigorrari dagozkion urte kopurutik harago doa, eta bide horretan modu kolektiboan lan egin behar da. Ez diot horri garrantzia kendu nahi, baina zigorrak bere horretan uste dut ez direla eraginkorrak. Nire lagun feminista batek dioen moduan, kode penala ez da feminismoaren lagun ona.

Herri Eskolak eta IMHek garatu duten 'Burmuinak Martxan' proiektua izan da PROA+ jardunaldietarako hautatuetako bat

Espainiako 40 ikastetxe baino gehiagotako ordezkariak elkartu ziren, joan zen asteburuan, Santander hirian egin zuten PROA+ jardunaldietan. Ia 3.700 hezkuntza zentrotan darabilte PROA+ errefortzu programa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru ikastetxe hautatu zituzten orientazioa, aurrerapena eta hezkuntza aberastasuna ardatz dituen PROA+ programaren inguruko jardunaldietan parte hartzeko; tartean, Elgoibarko Herri Eskola. Elgoibarko ordezkariak azaldu dutenez, jardunaldian parte hartu zutenetarako batzuek entzule gisa joan ziren, eta beste batzuek emale. Eurek azken horretan aritu ziren, eta irakaskuntza palanketan emandako aurrerapausoak aurkeztu zituzten.

Adituek eman zituzten hitzaldiak entzun ostean, ikastetxeetan lantzen ari diren praktika onen tailerretan ere hartu zuten parte. Horietan Elgoibarko Herri Eskolako ordezkariak IMHrekin garatu duten Burmuinak Martxan egitasmoa aurkeztu zuten. Besteak beste, ikaskuntza



zerbitzua, ikasketa kooperatiboa eta ebaluazio hezigarria ditu oinarri. Herri Eskolatik joandako ordezkarien hitzetan esperientzia aberasgarria izan da proiektua bera gauzatzea eta jardunaldietan parte hartzeko aukera izatea, eta partaide guztiak zoriondu dituzte, "Herri Eskolako ekarpenak eta Santanderren eginiko aurkezpenak harrera oso ona izan duelako".

Euskarazko ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak

Urtero bezala, euskarazko ipuinen lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak LH1etik DBH4ra arteko ikasleentzat, hiru mailatan banatuta: LH1-LH4, LH5-DBH2 eta DBH3-DBH4. Lan guztiak abenduaren 9a aurretik aurkeztu behar dira Word edo PDF formatoan, gaitzizen

batekin sinatuta eta gaitzizen bera duen kartazal barruan ondorengo datuak zehaztuta: izen-abizenak, ikastetxearen izena, maila eta telefono zenbaki bat. Kartazala Mendaroko Udalan aurkeztu behar da eskuz, posta arruntez edo emailaz (kultura@mendaro.eus).

'Kantu bat gara' kontzertua emango du eguenean Jon Maiak



Jon Maiak *Kantu bat gara* kontzertua emango du eguenean, abenduaren 1ean, Elgoibarko Herriko Antzokian (19:00). Besteentzat idatzitako hainbat hitz bildu ditu *Kantu bat gara* disko-liburuan (Elkar), horietako batzuek bere ahotsean, eta zuzenean aurkezten ari da orain han-hemen. Sarrerak salgai daude herrikoantzokia.eus webgunean eta zapatu honetan ere eskuratu ahal izango dira lehiatilan, 18:15etik 20:45era.

Santa Zeziliaren omenez, dantzan eta kantuan

Santa Zezilia musikari en eguna ospatzeko ekintza ezberdinak egin dira Mendaron eta Elgoibarren egunotan. Mendaron, Ameikutz musika eskolako txistulariak kalejiran irten ziren domekan, eta astelehenerako asmo bera zuten trikitilariak eta euskal dantza taldekoek, baina eguraldiak ez zuen horretarako aukerarik eman, eta planak moldatu eta ezinbestean frontoira mugatu behar izan zuten jaialdia. Martitzenean, Elgoibar Ikastolako txanda izan zen. Iaz bezala, Maalan ospatu zuten Santa Zezilia eguna HH5etik LH6ra arteko ikasleek, guraso eta lagunez inguratuta. Mailaka banatuta, kantuan jardun ziren eskola-umeak eta jende ugari bildu zen ikustera.



Domekan, Udal Musika Bandaren txanda

Domekan, Santa Zeziliaren omenezko kontzertu berezia emango du Elgoibarko

Udal Musika Bandak Herriko Antzokian. 12:30ean hasiko da, baina aurrez, 9:45ean eta Kalegoen plazatik abiatuta, kalejira egingo dute. Kontzerturako *Egun bat zirkoan* gaia aukeratu dute, eta lau pieza joko dituzte, Gorka Mujikaren zuzendaritzapean. *The tunderer* (J. Ph. Sousa), *Cirque du soleil* (R. Dupéré), *Vals n°2* (D. Shostakovich), Niala magoarekin eta *Fellini* (Johan de Meij). Azken obra honetan Aitor Nova bakarleri modura arituko da.

15.998 euroko zakua irabazi du Joanes Rodriguezek ETB1-eko 'Mihiluze' saioan



Joanes Rodriguez elgoibartarrak eta Aitor Blanco iruñearrak *Mihiluze* saioko zakua irabazi zuten martitzenean. Finalera iritsi eta azken proba gaintzea lortu zuten, Islandia, Suedia eta Finlandia herrialdeei buruzko hainbat gai argituta, eta horri esker, 15.998 euro poltsikoratu zituzten. Urriaren 25ean grabatu zuten saioa eta ordutik isilean mantendu dute garaipena. Oso pozik daude sariarekin, eta Rodriguezen bikotekide Amaia Lersundiri eskaini diote garaipena, martitzenean haren urtebetetze eguna zelako eta bera izan zelako lehiaketan parte hartzera animatu zituena.

ETXEKOAK NAGUSI

✍️ Ainara Argoitia
📷 Asier Orbea / Jose Ramon Cabrera

Iban Murua (28:01) eta Mayi Mujika (35:27) izan ziren azkarrenak zapatuan Karakateko Igoeran, nor bere sailean, baina ez bata ez besteak ez zuten orain arteko errekorrak ontzerik lortu. Gizonezkoen podiuma Iñigo Larizek eta Julen Aranguenak osatu zuten, eta emakumezkoena, Ainhoa Lendinezek eta Naomi Revertetek. Eguraldi makurrarekin jokatu zuten proba. Iragarria zituzten hotza eta euria eta beharbada horrek eragin zuen parte-hartzean, iaz baino antxixikari gutxiago irten zirelako. Hala ere, ez zuen horrek ikuskizuna zapuztu. Proba bera orduerdi aurretik hasi zuten, jendeak Euskaraldiaren hasiera festara joateko aukera izan zezan eguerdian, eta irteeran argazkia atera zuten korrikalariak euren ere Euskaraldiko hizkiekin. Euskararen aldeko aldarria ez zen, baina, eguneko aldarri bakarra izan, lasterketa bukatu berritan Karakaten egin nahi duten parke eolikoaren kontrako talde-argazkia ere atera baitzuten, Karakate Bizirik-ek deituta. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus





Aitziber Olaizolak bigarren egin du Euskal Herriko bola-joko txapelketan eta Jabier Osorok zazpigarren



Euskal herriko 32. hiru-txirlo txapelketaren seigarren eta azken saioa hartu zuen Aramaioko Etxaguengo bolatokiak zapatuan. Guztira 73 bolari lehiatu ziren azken sailkapena erabakitzeko balio zuen tiraldi erabakigarrian, eta Angel Ibarluzea elgoibartarra izan zen onena, zortzi txirlo botata (bakarra laga zuen zutik egin zituen hiru tiraldietan). Jon Andoni Jaka aretxabaletarra sailkatu zen bigarren postuan, zazpi txirlorekin. Sailkapen orokorrean, baina, honakoak izan dira irabazleak: MX3T taldeko Jose Angel Ogiza mallabiarra (28 txirlo), gizonetzkoetan eta Eibarko Asola Berri taldeko Enara Montiel (14 txirlo), emakumezkoetan. San Migel taldeko Aitziber Olaizola garaipena eskuratzetik txirlo bakarrera gelditu da, 13 bota baititu bolari elgoibartarrak. Markina-Xemeingo MX3T taldeko Eli Egia sailkatu da hirugarren, 12 txirlorekin. Jabier Osoro elgoibartarra sailkapen



nagusiko hirugarren postuan ailegatu zen azken jardunaldira, baina tiraldiaren ostean, zazpigarren amaitu du, 20 txirlorekin. Osorok berak, Angel Ibarluzeak eta Aitziber Olaizolak osatu duten San Migel A taldea txapeladunorde izan da taldekako sailkapenean. Markina-Xemeingo MX3T B taldea nagusitu da taldeka, 81 txirlo botata, San Migel A taldeak baino hiru gehiago.

Nuala elkartearen aldeko 'Igeriketa erronka solidarioa', abenduaren 17an

Kirol Patronatuak eta Elgoibar Igeriketa Taldeak 'Igeriketa erronka solidarioa' antolatu dute abenduaren 17rako eta batzen duten dirua Nuala elkarteari emango diote. Aniztasun funtzionala edo gaitasunen aniztasuna duten pertsonen irabazi asmorik gabeko elkarte da Nuala, eta horien ikuspena eta ongizatea bermatzea du helburu. Hainbat jarduera antolatu dituzte: 10:00etatik 13:00etara, igerileku berrian uretako puzgarriak

egongo dira, eta txikian umeentzako kanoetan ibiltzeko aukera. 16:00etatik 19:30era Igeriketa Erronka Solidarioa izeneko ekimena egingo dute. Igerilekura joaten diren guztien artean igerian zenbat metro egiten dituzten zenbatuko dute antolatzaileek. Denen artean ahalik eta metro gehien igerian egitea izango da helburua. Igerilekuko sarreran, berriz, kutxa bat jarriko dute eta Nualari diru-ekarpina egiteko aukera egongo da bertan.

Astigarraga trail taldea sortu dute

Kirola eta mendia maite dituen Elgoibarko lagun talde batek sortu du Casa Astigarraga Trail Taldea. Proiektuko arduradun Denis Saizek esan du aspalditik zebilkitela mendi lasterketetan lehiatzeko taldea sortzeko ideia. "Mendi lasterketei ordu asko eskaintzen diegun lagun taldea gara, eta gure zaletasuna partekatzen duten lagun berrientzako topagunea izango den taldea sortu nahi genuen. Orain, Astigarragako Gys Sport dendaren laguntzarekin gauzatzen ari da ideia hori: trail runningean aritzeko taldea osatzen dihardugu", azaldu du Saizek. Taldeako atea guztiz zabalik dutela nabarmendu du eta era guztietako korrikalarientzako lekua dutela, "izena eman nahi duen edonori irekitako taldea sortzen ari gara, berdin du korrikalari lehiakorrek badira edo mendizaleak soilik". Mendi lasterketetan lehiatzea ez da derrigorrezkoa izango taldekide izateko. Hala ere, lehiakorrenak diren antxitxikari horientzat atal berezi bat sortuko dute talde barruan, "gure taldearen izena ezagutzera emateko lasterketetan eta". Hasieran, hori baitute asmoetako bat, taldeari izena eta ikusgarritasuna



ematea, eta taldekide bakoitzak doan tokira doala "harrotasunez erakustea taldearen izena eta jatorria". Taldera batu nahi dutenek, edo informazio gehiago jaso nahi dutenek, casaastigarragatrailtaldea@hotmail.com helbidera idatzi dezakete. Azaroaren 27a da izena emateko azken eguna. Instagram sare sozialean ere badute kontua.

Igerilari gaztetxoek emaitza onak eskuratu dituzte Bergaran eta Legazpin



Elgoibar Igeriketa Taldeko benjaminek eta alebinek KZL ligako jardunaldiak jokatu zituzten aurreko asteburuan. Benjaminek testa izan zuten Bergarako Agorrosin igerilekuan eta ligako bigarren jardunaldian lehiatu ziren alebinak Legazpian. Benjaminei dagokionez, nabarmentzekoa da 50 metro estilo libreko proban

lortu zituzten emaitzak eta baita erreleboetako probetan elgoibartarrek utzitako arrastoa ere. Alebinetan berriz, "oso emaitza txukunak" lortu zituztela azaldu dute taldeko arduradunek. 200 metro estiloak eta 100 metro libre probetan nabarmendu ziren. Egindako lanagatik zoriondu dituzte arduradunek.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

Lorezaintzan ere esperientzia daukat.

624 127 147

Adinekoak zainduko nituzke, gaguez. Ospitalean ere bai. Esperientzia handia daukat. Etxeko lanak eta garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Etxeko langile moduan egoteko prest.

643 977 786

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

624 579 899

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

631 341 616

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

662 460 266

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

613 558 760

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak ere egiten ditut.

602 342 429

Umeak eta adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak ere egiten ditut. Esperientzia handia dut lanotan.

685 724 861

Geriatriako laguntzailea. Adinekoak edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko prest nago.

Erreferentzia onak eta esperientzia handia ditut.

660 511 781

Klase partikularrak emateko prest gaude, astelehenetik ostiralera, 15:15etatik 19:15era edo 20:15etara. HH, LH, DBH eta Batxilergoko ikasleentzat.

688 610 755

Umeak goizetan eskolara eramateko prest nago. Arratsaldeetan, berriz, umeak zainduko nituzke edo orduka garbiketa lanak egin. Esperientzia daukat.

615 759 069

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Zerbitzari edo sukalde-laguntzaile lanak ere egingo nituzke.

643 575 039

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Zerbitzari edo sukalde-laguntzaile lanak ere egingo nituzke.


643 575 070


Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Zerbitzari edo sukalde-laguntzaile lanak ere egingo nituzke.

622 023 451

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatutako Administrazioaren Kontseilua</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Senarrak eta biok etxe bat daukagu gure komunitatean erdibana, gure bizilekua dena. Baina komunitate berean, nireak soilik diren beste bi etxebizitza ditut. Etxejabeen bilerak egiten ditugunean zalantzak izaten ditugu nere botoak zenbat balio duen zehazterakoan.</p> <p>Bi gauza bereiztu behar dira: Alde batetik, bi etxebizitzaren jabe zara, eta bestetik, irabazpidezko jabekidea zara senarrarekin batera beste etxebizitza batean. Lehenengo kasuan legeak dio etxe edo lokal bat baino gehiago dituen jabeak boto bakarra izango duela, koefiziente guztien baturarekin. Jurisprudentziak, gainera, boto bakarra emateko aukera eskaintzen dio jabe bakoitzari, etxe edo lokal bakarraren jabea edo bat baino gehiagoren jabea izan. Baina partaidetza kuota dagokionean etxe edo lokal bakoitzari dagokion partaidetzen batura hartzen da kontuan. Bigarren etxearen kasuan irabazpidezko jabekidetzat bat dagoenez, ordezkaritza bat izendatu behar da, etxejabeen batzarrean parte hartzeko.</p> <p>ONDORIOA: Kasu honetan emazteak boto bat eta etxe propioen koefizienteen batura izango du. Beste boto bat emateko aukera izango du senarrarekin erdibana daukan etxebizitzagatik eta horri gehitu behar zaio etxe honen partaidetza koefizientea. Hortaz, hiru etxebizitza daudenez inplikaturata, bi boto pertsonal eta hiru partaidetza koefiziente izango da azken emaitza.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Beñat**, azaroaren 14an 4 urte bete zenituelako. Patxo handi bat familiakoen partez.



Zorionak, **Leire!** Nuria, Ane, Sara eta Maialenen partez. Muxu handi bat.



Zorionak, gure etxeko printzesa txikiari, azaroaren 14an 6 urte bete zituelako. Muxu potolo asko bereziki Laiaren partez

EXPRESS ESKAINTZAK!

EGIN AURRE HOTZARI!

HJM GA4200
GAS
BEROGAILUA



99 €

FM RW-20
OLIO
ERRADIADOREA



72,90 €

ROWENTA
S02320F2
BEROGAILUA



45,90 €

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



Ikusi gure katalogoa!

- ❖ Neurria egindako oheburuak!
- ❖ Oihal mota eta sky aukera zabalak!
- ❖ Neurri guztiak! Kolore guztiak!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Osasun gida



RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola

GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22
Elbar

677 551 850



fisio&mas

Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 698
www.fisio-mas.com

RPS 177/12

RPS 271/12



Jausoro plaza, 6 behe
Elgoibar

943 531 953
669 565 745 

RPS 183/12



Elgoibar
943 740 359

Deba
943 192 192

leku eder



hortz klinika
RPS 171/12

Elena Herrero Lobo
Alta Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053

federópticos



ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

25 BARIKUA

18:00 Elkarretaratzea:

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Kalegoen plazan.

19:00 Kontzertua: El Drogas. Herriko Antzokian.

19:30 Indarkeria matxistaren kontrako ekintza, Mendaron, Herriko Enparantzan, Tratu Onen Aldeko Taldeak antolatuta. Ludotekakoak 18:00etan batuko dira ekintzan parte hartzeko.

26 ZAPATUA

Hil bukaerako feria

9:00 Baserriko produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

11:00 Karakate Bizirik-ek txosna zabalduko du.

12:00 Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.

Egurditik aurrera, ganadu erakusketa, Kalebarren plazan.

9:30 Emakumeentzako autodefentsa tailerra. Olaizaga kiroldegian. 14 urtetik gorakoentzat. Izena emateko: 943 744 415

12:30 Karakaten egin nahi dituzten eolikoek kontrako ekintza. Karakate Bizirik plataformak antolatuta, Kalegoen plazan.

27 DOMEKA

9:45 Udal Musika Bandaren kalejira.

12:30 Udal Musika Bandaren Santa Zeziliako kontzertua. Herriko Antzokian.

28 ASTELEHENA

18:00 Indarkeriaren eskailera hitzaldi-tailerra. Loredi Salegik emango du, Lilan.

30 EGUAZTENA

17:30 Hitzaldia: 'Zer egin dezakegu gure haur eta nerabeek sexualitate aske eta osasuntsua izan dezaten?'. Eider Goiburu sexologoak emango du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19:00 Epeletan literatur solasaldia. Irati Jimenezen 'Bat, bi, Manchester' liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

1 EGUENA

19:00 Kontzertua: 'Kantu bat gara'. Jon Maia bertsolariak 30 urteko kantugile ibilbideari erreposoa egingo dio. Herriko Antzokian.

Zinea

'Amsterdam' 26 zapatua: 19:00/22:15 27 domeka: 19:00 28 astelehena: 21:00	'Minions: El origen de Gru' 27 domeka: 16:30	'Ninjababy' (Ongarri) 30 eguaztena: 21:00
---	--	--

JUBILATUEN ASTEA

25 barikua

10:00 Mufomi fosilen museora eta haitzuloaren erreplikara bisita. Javier Vargasek gidatuta. Artetxeko museoan.

26 zapatua

18:00 Kina berezia. Jubilatuen biltokian.

27 domeka

11:00 Meza, hildako jubilatuen omenez. San Bartolome parrokiaren.

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00		
GUARDIAK: Eguz: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)		
RAILA	Eguz	Iluntzean
25 BARIKUA	Yudego	Yudego
26 ZAPATUA	■ Oruesagasti	-----
	■ Arriola	-----
27 DOMEKA	■ Oruesagasti	-----
28 ASTELEHENA	Barrenetxea	Barrenetxea
29 MARTITZENA	■ Ibañez	Arriola
30 EGUAZTENA	Garitaonandia	Garitaonandia
31 EGUENA	Arriola	Arriola
32 BARIKUA	■ Fernandez	Yudego
■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Esther Mendinueta Berastegui - Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106		

G R E M I O N E N GIDA

AROZTEGIA

Ulazia

AROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albixuri industrialdea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA

egoluz ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: **630 957 345**
677 512 462

Pedro Migel Umuzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
ego.luz@hotmail.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara

943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com



LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223

lodosof@gmail.com

943 743 490



ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Umuzuno, 8
943 740 512
Faxa: **943 743 565**
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279



AROZTEGIA

MAR AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea

943 531 471
609 054 978

carpinteriamar@hotmail.com



PINTURA

BIOK dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com



ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Erosario kalea, 15 behea - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168



AROZTEGIA

BIENA S.L. AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.us
info@biena.us




Alcorta¹

FORGING GROUP

LANPOSTU BERRIA:

EKOIZPEN LERRO AUTOMATIKOKO ARDURADUNA

Zu bezalako norbaiten bila gabiltza Alcorta Forging Groupen. Ekoizpen lerro automatiko bateko ardura hartuko duen langile bat behar dugu, aurrez lerro automatikoren baten esperientzia duena, bai forjan edo beste industria sektore baten. Gainera, robotikan eta karretilan ezagutzak izatea kontuan izango dira, eta nola ez, jarrera positiboa, proaktibitatea eta gure enpresarekin lotutako baloreak partekatzea.

ZER ESKAINTZEN DUGU?

Garapen profesionala, egonkortasuna eta soldata lehiakorra dituen enplegua, lan giro atseginez gain.

LANAK ZERTAN DATZA?

Hautatuko pertsonak, Europa mailan dagoen forja automatizatuenetako baten lan egiteko aukera izateaz gain, hainbat erronka eta ardura hartzeko aukera ere izango du, besteak beste; matxura ostean lerroa martxan jartzeko ardura, makina aldaketak gainbegiratzea, tresnen muntaketa, OOL mantenimendua, eragiketen erregistroa, makinarian oinarritzko mantenua, beste eremu batzuekiko beharren koordinazioa (material hornidura, trokelak, mantenua...) eta bere ekipoak ekoizten duenaren kalitatearen ardura bere gain hartuko du.

BILATZEN GABILTZANA ZARELA USTE DUZU?

Email honen bitartez, gurekin harremanetan jarri zaitez:
azubizarreta@alcortagroup.com.

